

{ asteari zeharka begira } **Mikel ZUBIMENDI BERAŠTEGI**

Hizkuntza birus bat da, krudela oso kazetaritzan

William S. Burroughs idazle estatubatuarrena da ideia: hizkuntza birus bat da. Gizartean sartu den parasittoa, birsortzeko eta bere eragina zabaltzeko ostalari bezala hartzen gaituena. Sortu eta hondatu, askatu eta zapaldu, dualtasun horixe du hizkuntzak, eta ez da kapritxozko metafora. Errealitatearen inguruko gure pertzepzioari forma ematen dio eta, Burroughsen arabera, prozesu horren bitartez gure pentsamenduen gaineko kontrola lortzen du, gure bizitzen gainekoa. Bere ustez, hizkuntza ez da komunikatzeko tresna hutsa, gizateria kutsatu duen indar maltzurra da, bere agenda propioa zabalduz, egia ilunduz eta estaliz.

Birus bat bezala deskribatuta, manipulaziorako eta kontrolerako daukan indarra azpimarratu nahi zuen. Birusak bezala, gure buruak kolonizatzeke eta jokaretan eragina izateke eboluzionatu eta moldatzen delako. Hiztunen ideologiak, aurreiritziak eta dogmak altzoan eraman eta belaunaldien eta gizartearen zehar hedatzen ditu. “Hizkuntza=birusa” nozio hori oroigarri ona iruditzen zait literaturan, oro har askabidean, esperimentazioak eta erresistentziak duten potentziala gogoratzeko.

Ontzat eman dezagun hizkuntza birusa dela, arriskua dela, eta boterea; darionagatik, blaitzen duenagatik, bere orban eta koloreengatik. Zirrikitueta ibiltzen da, uhinak betetzen ditu, gure artekoa da, gure baitan bizi da, baina gu gabe. Batzen eta banatzen gaitu, estasira edo desesperantzara eraman ahal gaitzake, iragaziz, iragazkor, gure minak garrasika ipiniz, gure ametsei eta amesgaiztoei ahotsak jarritz.

Burroughsen ideia bueltatu naiz egunotan irakurri dudak artikulu baten eskutik. “The Intercept” aldizkari digitalak zabaldu du berria. Funtsean, “The

New York Times” egunkariaren barne zirkular baten filtrazioa da, Gazakoaz informatzeko erabili behar den hizkuntzaren inguruko zuzentzarauak finkatzen dituen. Egiarekin, informazioaren zehaztasunarekin eta denontzako justiziarekin oinarritzeko kezka dugunok desafiatu egin beharko genukeen kazetaritza maltzur eta pobretzaile baten erretratua iruditzen zait. Ofizioaren lotsarako, ustez kategoriazko kazetaritza helburu, izugarrikeria zein hizkuntza eta hitzekin deskribatu behar den dotrina instituzionalizatzeke ahalegina.

Ikaragarria da. New Yorkeko egunkari sonatuaren barne zuzentzarauen arabera, ezin da ‘genozidio’, ‘lurralde okupatu’, ‘garbiketa etniko’ eta, are, ‘errefuxiatu eremu’ bezalako kontzepturik erabili. ‘Palestina’ hitza ere kasu oso zehatzetan baino ez erabiltzeko agintzen du. Are krudelagoa, kazetaritzarako hizkuntza orekatu baten izenean, ‘masakre’ edo ‘sarraski’ be-

Ustez, «genozidio», «masakre» edo «Palestina» hitzek informazioan baino emozioan, gertaeretan baino etiketetan, kokatzen dute kazetaria

zalakoak ezin dira erabili, informazioa baino emozioa transmititzen dutelako, argitasun eta zehaztasunari kalte egiten diotelako, gertaeretan zentratu beharrean etiketetan erortzen omen delako kazetaria. Baina bixia da, iazko urriaren 7 eta 14 artean, Hamasen eraso gertatu eta ondorengo astean, 53 aldiz argitaratu zuen “masakre” hitza, eta ia bederatzi hilabeteko gerran behin bakarrik Israeli egotzita.

Eta hori, sinesgarritasun, oreka, profesionaltasun eta objektibotasunaren oasizat bere burua hartuta. Horrela jotzen badute boteretsuek, nola ez dira egongo hizkuntza birusa dela pentsatzen dutenak? •